

Ugaldu



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Landareak berez ugaltzen dira; ingurura begiratu... Geuk egitera, landareak ugaltzea urte osoko lana da. Horretarako era asko dago. Ezagunena hazia ereitea da: fruituak heltzean ondutako haziak jaso, eta sasoiaren erein. Haziak ez diren landareen beste zati batzuk ere erabil daitezke landare berriak sortzeko: hostoa, kimua, puja, urtadarra, aldaska, adarra, altsuma, herrestadarra, sustraia, tuberkulua, errizoma, kormoa, erraboila, erraboiltzoa eta abar. Azken bostak landare amarengandik bereizi eta aldatuz gero, aise itsasten dira; erreserba guneak dira eta, horietatik baliatuz, landare berria osatuko da.

Tuberkuluak dituzte, besteak beste, patatak (*Solanum tuberosum*) eta ziklamenak (*Cyclamen sp.*). Errizomadunak dira kanabera (*Arundo donax*), banbu jendea, ostargi-belar arrunta (*Iris germanica*) eta ostargi-belar horia (*Iris pseudocorus*), kala (*Zantedeschia aethiopica*)... Kormoa dute azafraiak (*Crocus sativus*), azpelarrak (*Colchicum autumnale*), ezpata-belarrak edo gladioloak (*Gladiolus sp.*), alokasiak eta kolokasiak (*Alocasia sp.* eta *Colocasia sp.*) eta azafrai urrinak



MANUEL GARCÍA BARROS-CC BY SA

(*Crocoshia x crocosmiiflora*). Lurpeko erraboila gizentzen dute, adibidez, tipulak (*Allium cepa*), baratzuriak (*Allium sativum*), idi-bihotzak (*Tulipa sp.*), zitoriak (*Lilium pyrenaicum*), barrabas-belarrak (*Oxalis latifolia*) eta moredinak edo hiazintoak (*Hyacinthus orientalis*). Lurgaineko erreboiltzoak ematen dituenik ere bada, baratzuria bera eta tigre zitoria (*Lilium lancifolium*), adibidez, baita zenbait garo eta harrautsi (*Saxifraga sp.*) ere.

Lur gainekoak bezala azpiko herrestadarrak luzatzen dituzten landareek ere zaputzaldi handirik gabe ugaltzeko aukera handiak dituzte. Urrutira gabe, ho-

rien tartetikoak dira marrubiak (*Fragaria sp.*), lezka arrunta (*Phragmites australis*), barrabas-belarra, papiroa (*Cyperus papyrus*), menda ugari (*Mentha sp.*), edaskia (*Ranunculus reptans*), girtangorria (*Ajuga reptans*), askimotza edo arrosario-belarra (*Cynodon dactylon*), batanitzaren (*Stachys recta*) generoko batzuk (*Stachys alegia*) eta ezkerre beltza edo biurda edo txidurka (*Convolvulus arvensis*).

Gure lurraldean urteko bigarren udaberria hemen da. Horrek dakarren izerdialdi berria aprobetxatu, baldin eta aipatutako landare puskekin berriak sortu nahi badituzue. Sasoa da. ■



Piperrak belztuta

Kaltzioak animalien hezurak osatzen dituen era berean landareen egiturak eratzen ditu. Kaltzio ugari behar dute landareek. Kaltzio hori urri duenean, landarearen euste-egitura ahultzen da, eta taxua eskatu. Ondorioak azkar azalduko dira. Piperretan (*Capsicum annum*) alearen alde bat belzten da, mamia mehetuz eta zikoiztuz. Tomatean ere (*Lycopersicon esculentum* edo *Solanum lycopersicon*) nabarmena izan ohi da: fruituaren ipurdia belztu, barnatu eta zakartzen da. Kaltzio falta lurtean ez delako edo landareak behar adina hartu ezin duelako gertatzen da. Bero ikaragarriak direnean eta lurtean nahikoa ur izanagatik behar adina ezin hostoratu duenean ere, arazo hori bistaritzen da. Ura tenperaturari eustera bideratzen du landareak, eta fruituak sufritu... Ur horrek dakartzen mineralak, kaltzioa tarteko, ezin behar bezala gobernatu... Piperrak belztu bazaizkizu, badaezpada, kaltzioa eman lurrari: karea, oskol ehoak, kareharri harea edo hautsa, errautsa...

ARGAZKIA: JAKOBA ERREKONDO